# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARTIZA

### 782

2/2005 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, Lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egiten duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 7.c eta 50. artikuluek Lehendakariaren esku uzten duten ahalmenari eutsiz, eta Jaurlaritzak 2005eko otsailaren 15ean egindako bilkuran aztertu ostean, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egitea ebatzi dut.

Xedapen horietan ezarritakoa aintzat hartuz, eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 46. artikuluan —ekainaren 19ko 15/1998 Legez emandako erredakzioan— eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egitea.

1.– Desegin egiten da 2001eko maiatzaren 13an aukeratutako Eusko Legebiltzarra.

2.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako deia 2005eko apirilaren 17rako egiten da.

*2. artikulua.–* Legebiltzarkide kopurua.

Hauteskunde barruti bakoitzeko 25 legebiltzarkide hautatuko dira, horixe baita Autonomia Estatutuaren 26. artikuluan eta ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 10. artikuluan ezarritakoa.

*3. artikulua.–* Hauteskunde kanpaina.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 68.2 artikuluan xedatutako moduan, hamabost egun iraungo du hauteskunde kanpainak. Apirilaren 1etik 15era arte iraungo du kanpainak, egun biok barruan direla.

AZKEN XEDAPENA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 46.3 artikuluan xedatuta dagoenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 782

DECRETO 2/2005, de 21 de febrero, del Lehendakari, por el que se disuelve el Parlamento Vasco y se convocan elecciones.

En ejercicio de la facultad que atribuyen al Lehendakari los artículos 7.c y 50 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, efectuada la preceptiva deliberación del Gobierno en reunión celebrada el día 15 de febrero de 2005, he resuelto disolver el Parlamento Vasco y convocar elecciones.

En consecuencia, en virtud de los preceptos citados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, en la redacción dada por la Ley 15/1998, de 19 de junio, y demás legislación aplicable,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Disolución del Parlamento Vasco y convocatoria de elecciones.

1.– Queda disuelto el Parlamento Vasco elegido el día 13 de mayo de 2001.

2.– Se convocan elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el domingo día 17 de abril de 2005.

*Artículo 2.–* Número de parlamentarios o parlamentarias a elegir.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 26 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y 10 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, se elegirán 25 parlamentarios o parlamentarias por cada circunscripción electoral.

*Artículo 3.–* Campaña electoral.

De conformidad con el artículo 68.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, la campaña electoral durará quince días. Comenzará a las cero horas del día 1 de abril y concluirá a las veinticuatro horas del día 15 de abril.

DISPOSICIÓN FINAL

Con arreglo a lo dispuesto en el artículo 46.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, al presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.